

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Kontribuzio Zerrenda. 2016ko urtea. (Espedientea: H16-003)

Arabako Foru Aldundiak 2016 urteko Laudioko Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Zerrenda, onartu du.

Alkatetzak, 2016ko abuztuaren 4 eguneko 1.930 zenbakia duen ebazpenaz, Zerrenda hori jendaurrean erakutsi onartu du, ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan egunetan zehar, honako leku hauetan:

- Estatuko eta Probintziako kuotak: Arabako Foru Aldundian.
- Udalerriko kuotak: Laudioko Udaletxean.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute Herriko Etxeko -Udaletxeko- Ogasun eta Ondare Arloko bulegoan (Herriko Plaza - bigarren solairuan) 9:00/14:00 orduetegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio Padroia jendaurrean erakusteak esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta Zergen Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskapeneko Udal Ordenantzako 19-2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatu den Alkatetzako Ebazpenaren aurka Kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsioa jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertze errekurtsioak Alkateari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2016ko urriaren 20 egunetik 2016ko abenduaren 20 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden erreziboak 2016ko azaroaren 21 egunean kobratuko dira.

Zergaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank eta Laboral Kutxako bulegoen bitartez egingo da, Kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutzak etxera bidalitako ordaindu beharreko erreziboa aurkeztuta. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, erreziboaren ale bikoiztua eskatu Herriko Etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan, Herriko Plaza - Behea Ezkerrean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren erreziboak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legetan erabakitako ginkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatikoko kostuak.

Laudio, 2016ko abuztuaren 4a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA